



Lazpitalarra

etxebizitza

Aldacrak: Kapelena
Ahozkoa:

“... la casería rústica titulada Lazpita larra... situada en la barriada de Sarria, jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz que comprende con su zaguan ciento ocho estados cuadrados superficiales de planta solar, y la que se compone de dos viviendas, con piso bajo y otro alto a manera de entresuelo...”
DJE, 2/84 or. (1867)



43° 11' 18"

2° 36' 20"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Garai bidean dagoen baserri honen gaineko lehen aipamena 1704ko Bizkaiko su-erroldean aurkitzen dugu: *Laspita Larra*. Izenak aldaera gutxi jasan ditu mendeetan zehar. Lehenbiziko su-erroldean bananduta agertzen bada ere, gerora bi formak txandakatzen dira (banandua eta elkartua), eta batez ere, XX. mendean zehar, elkartuta agertzen da idatzirik: *Lazpitalarra* (1825, PE/1825.), *Laspita larra* (1865, DJE, 1/133. or.) eta *Lazpitalarra* (1910, BUA, RU.). Berriztarren artean, *Kapelena* izenez ere ezagutzen da. Dirudienez, lehengo jabeetako batek ohitura zuen kapelarekin ibiltzeko, eta hortik datorkio ezizena.

Etxeak XVIII. mendeko baserrien itxura du; baina teilatuaren gailurra ez dago ardatzean, eta hori beranduago obrak egin izanaren adierazlea izan daiteke, agian, bizitza bikoia bihurtzeko egin ziren lanen garaikoa. Dena dela, jatorrizko eskema sinplea da. Bi isurkitako teilatua du, eta fatxada hiru ardatzetan antolatuta zuten. Erdian, sarrerako arku bikaina zeukan, atarte zabalera sartzeko, eta gainean, balkoia. Azken hori ere beranduago jaso zuten, hormigoiak garbi uzten duen moduan. Aldamenetan, leiho bana dauka, solairu bakoitzean.

toponimia

Lazpita izenaz eta larra hitzaz osatutako etxe izena. Antzina larrak oso ugariak ziren gurean eta behar beharrezkoak baserrien bizitzarako abereen bazka eta egur eta zura lortzen zelako, besteak beste, baina denborarekin etxeak eraiki ziren izatez irekiak izan ziren inguru horietan, kasu honetan bezala